

HERNANI SAGARDO FORUMA

Sagardo zaporedun jardunaldiak laister, Oronan

Kronika - Erredakzioa 2019-11-02 00:00



Aurreko urteko II. Sagardo Forumean bisitak egin ziren sagastietara.

Hilaren 21, 22, 23, 24 eta 25ean, III. Sagardo Forum jardunaldiak egingo dira, Sagardoaren Lurraldeak antolatuta. Egingo diren hitzaldiez gain, II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa jokatu da, hilaren 23an.

HILAREN 21etik, 25era bitartean, III. Sagardo Foruma ospatuko da, Sagarrari, sagardoari eta turismoari buruzko jardunaldiak lelopean. Hainbat ekitaldi eta hitzaldi antolatu dira hilaren 21, 22, 23, 24 eta 25 egunetarako.

Hamaika ekitaldi,

III. Sagardo Forumean

Hilaren 21 eta 22an, jardunaldi teknikoak egingo dira Oronan. Bertako eta nazioarteko hainbat profesionalak hitzaldiak egingo dituzte, «egungo egoerari ikuspegi orokorra eskaini eta azken urteotan sagardoaren alorrak bizi izan duen bilakaeraren berri emango dugu» adierazi dute antolatzaileek.

Ekimen honez gain, II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa jokatu da, hilaren 23an, Donostiako Kursaal Kongresu Jauregian, hain zuzen ere. Bertan, «munduko hainbat tokitatik etorritako dastatzaile prestigiotsu izango dira». Honakoek be-deratzi kategoriatan sailkatutako hainbat sagardo mota dastatuko dituzte, hala nola, Euskal Herrian ekoiztutako sagardoa, sagardo natural asturiarra, sagardo tradizional frantsesa, sagardo tadizional ingelesa, sagardo berria, premium sagardo apardunak, apfelw sagardoa, zaporetako sagardoa eta urardoa, eta izotzezko sagardoa.

Lehiaketara aurkeztutako onenak aukeratuko dituzte, aipatutako dastatzaile profesionalak.

«Munduko hainbat tokitako dastatzaile prestigiotsu izango dira antolatutako jardunaldietan».

Aurten, berrikuntza

Urte honetan, berritasun gisa, Nazioarteko Sagardo Azoka antolatu da, hilaren 24 eta 25ean, Donostiako Kursaal Kongresu Jauregian. Azoka hau, profesionalak eta herritarrei zuzenduta dago, eta antolatzaileek adierazi dute aukera dagoela bertako erakusmahai bakoitzean dagoen sagardo mota ezberdinak dastatzeko.

Bost egun, sagardo zaporekoak

Antolatuko diren bost egun horietan, III. Sagardo Forumak, Sagardoaren

Lurraldean «batuko ditu landuko diren gai bakoitzeko profesional puntako-enak». Beraz, azaroaren 21etik 25era, aukera paregabea egongo da, esperientzia berriak bizitzeko eta hautetatik ikasteko. Antolatzaileek adierazi dute, sagardoaren egungo errealitateaz jabetzeko aukera ezin hobea dela. Hori horrela, III. Sagardo Forumeko jardunaldietara gonbitea luzatu nahi izan dute herritarrentzat, «zuen zain izango gara!».

Antolatu diren ekimenez gain, II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa jokatu da.

Kontaktatzeko datuak


Informazio gehiago behar izanez gero, 934 55 05 75 telefonora deitzeko aukera dago, edo emaila bidali helbide honetara; info@sagardoarenlurraldea.eus. Bestela, web orrian sartuz, www.sagardoarenlurraldea.eus sartuz.



Kultura Hernani



Erantzun



Ikusienak



[Udazken koloreak atzera, marroitik berdera](#)

Kronika - Erredakzioa
aza 26

Urumea



[Zapiain sagardoa irabazle bertakoen artean, Egoitz Zapiain eta Paul Vanderrena, bereziena](#)

Kronika - Erredakzioa
aza 28, 00:00

Astigarraga Hernani



[Ttapa Ttaparekin ibilaldia gaur goizean, baita Astigarragako adinekoek ere](#)

Kronika - Erredakzioa
aza 27, 00:00

Astigarraga Hernani



['Amonaren istorioak' ipuin kontaketa, abenduaren 27an](#)

Kronika - Erredakzioa
aza 27, 00:00

Goizueta



[Idoia Esnaolak bere 100garren maratokia amaitu du eta Unai Santamaria izan da bailarako aurrena](#)

Kronika - Erredakzioa
aza 26

Astigarraga Hernani



[Eukene jantzidenda, Beterri-Buruntzako bitxia](#)

Kronika - Erredakzioa
aza 27, 00:00

Hernani

Kronika.eus

Dobera Euskara Elkarte

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika[ABILDUA]kronika.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#) [LEGE OHARRA](#) [PUBLIZITATEA](#) [ARAUAK](#) [HARREMANETARAKO](#) [RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

- [AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [ANBOTO](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [AIURRI](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GOIENA](#) [GUAIXE](#) [HIRUKA](#)
- [KARKARA](#) [MAXIXATZEN](#) [PLAENTXIA](#) [ALEA](#) [28 KANALA](#) [ANTXETA](#) [BARREN](#) [ERLO TELEBISTA](#) [GEURIA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#)
- [KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [NOAUA](#) [DEUSTUALDEA PREST](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#) [AMEZTI](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#)
- [Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Itap](#)
- [Tokikom publizitatea](#)